


Hitz eta pitz

Kotxea defendatu behar omen da

"Kotxeak abantaila ugari ekarriko zituela uste genuen. Eta hala izan zen, baina gaur egun kotxe gehiegi dago. Argi dago errepideetako kotxe eta kamioi uholdeak arazok eragiten dituela. Ezbairik




gabe neurriak hartu behar dira. Dena dela, kotxea defendatzen jarraitu behar dugu". Joaquín Arevalo Real Automovil Club Vasco-Navarro elkartearen presidentearen hitzak dira, hilaren 20an "Diario Vasco" egunkarian argitaratuak. Arevaloren arabera, kotxea askatasunaren adibide gorena da, gidariari nahi duen tokira joateko aukera ematen baitio. Bere ustez, euskal herritarrak nahiko zorrotzak gara gidatzeko orduan. Hala ere, errepideetan argi ibili beharra dagoela dio. Hilaren 23an Kontxako pasealekuan JMPG txirindulari anti-guatarra harrapatu zuen kotxe batek. Ez da gure hirian tankera honetako ezbeharrak gertatu den lehen aldia.

Denok zorrotzago ibili behar dugu, argi dago.

Olaia Castresana altzatarra Torreviejan hila

Hilaren 24an, asteartea, Olaia Castresana ustezko etakidea hil zen Torreviejan lehergailu bat manipulatzeko ari zela. Leherketa arratsaldeko 17.30etan gertatu zen, Torreviejako Puerto Romano hiribidean, apartamentuz osatutako

hirigunean, hain zuzen. Olaia Castresana altzatarra zen, eta 22 urte besterik ez zituen. Parte Zaharrean asko ibili ohi zen. Ezker abertzaleak greba eguna deitu du Donostian uztailearen 27rako, ostirala.



Neurri berriak saihesbidean eta N-1ean

Donostiako saihesbidean eta Andoaindik Donostiara doan N-1 errepide zatian trafikoa arazo ugari izaten ari da azkenaldi honetan. Errepide honetan kotxe ilarak ia eguneroko kontua bihurtzean ari dira, batik bat Añorgan. Arazoa konpontzeko Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak azterketa egitea eskatu zioten Valentziako unibertsitateari. Azterketa erakundeon esku dago dagoeneko.

lkerketa honen arabera, hainbat neurri hartu behar dira arazoari irtenbidea emateko. Batetik, ibilgailuek gehienez ere 80 km orduko abiadura ibili beharko lukete, eta erradarrak ugaritu eta kontrolak zorrotz beharko lirarteke, besteak beste. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Sailak ez du oraindik finkatu neurriok noiz jarriko diren indarrean.

Monpaseko emisarioa martxan

Astebete darama lanean Monpaseko urazpiko isurbideak. Hasieran ekainean inauguratzea aurreikusi zen arren, azkenean eraikitzea lanak atzeratu egin dira. Aurrerantzean, itsaso azpian jarritako tutuari esker, Donostiako ur-beltzak itsasertzetik kilometro batera isuriko dira. Hala ere,

Donostialdeako saneamendu sistema berria ez da amaituko Loiolako araztegia martxan jarri arte. Aurreikusitakoaren arabera, araztegia 2003 urtean jarriko da abian. Dena den, aurretik hainbat frogak egon beharko dira. Itsasoko uraren kalitatea hobetzea da proiektu hauen helburu nagusietako bat

